

TALDE MISTOA


HEZKUNTZA KOMUNITATE DIALOGIKOA
ERAIKITZEN



Salvatore Mitxelena Ikastola
Zarautz

PROIEKTUAREN ITURRIAK.

1. Ikastolaren komunitatean egindako beharren ikerketaren dokumentua.
2. Ikasleen taldearekin egindako lehenespen txostena.
3. Ikastolaren ildo estrategikoen txostena: **Ikasleen interesak aztertu eta ikastolarekiko komunikazioa sendotu.**
4. Ikastolako oinarrizko prozesuen egitura. Aurreko puntuan azaltzen den helburuaren kudeaketa, prozesu modura jarrita.
5. Geletako Guraso Ordezkarien Taldeko txostena.
6. Batzorde, Pedagogi azpibatzerdea, Talde Pedagogiko, klaustroa eta Ikasleen Taldeetan kontrastatua eta onartua.



HELBUURUAK

Proiektuaren helburuak, aurreko urteetan egindako ikerketa, antolamendu eta gogoetetan kokatuko litzateke. Alde batetik, formazio beharrak antzemateko egindako ikerketan, ikastolako kolektibo guztietatik, **ikasleekin dugun komunikazioa, eta bere inguruko gaiak aztertu** eta kontrastatzeko lehentasun behar bat identifikatu genuen, eta horren ondorioz, ikasleen taldean hausnarketa eta gogoeta desberdinak eginez, talde honek gaien lehentasun zerrenda bat burutu zuen. Bestalde, paraleloki ikastolako organo desberdinetan gaia aztertu genuen (Taldea Pedagogiko, Irakasleen ziklo bilera, Batzorde eta Pedagogi azpibatzerdean bereziki) alde batetik, eta bestetik, ikerketa modura, Geletako Guraso Ordezkarien Taldeak horren beharra ere identifikatu eta priorizatu zuen. Horrela, bada, **ikastolan eguneroko bizitzan duen eragina kontutan harturik, horren inguruan, Hezkuntza komunitate dialogiko bat sortzea helburutzat hartu dugu**, non, ikastolako kolektibo eta organo eraginkor guztiak ordezkatuta izango diren.

Konkretuki, ikasleen interesak aztertu eta ikastolarekiko komunikazioa sendotu ahal izateko, **TALDE MISTOA** izena duen organoa edo komunitate dialogikoa sortu dugu, bertan, eta hurrengoan aipatzen diren eremuetan **gogoeta eta ikerketa pedagogiko bat** aurrera eramanez nahi izango dugu:

1. Ikasleengandik edozein iradokizun edo kezka jaso, beti ere, ikastolaren funtzionamendu orokorrarekin eta ikasketa prozesuarekin lotutako gaiak.
2. Ikastolako Barne Araudia eta eguneroko funtzionamenduari buruzko arauen aplikazioan kontrasteak egin eta bere kasuan aldaketarik proposatuko balitz, bere elaborazioan parte hartu.
3. Ikastolako dinamizari buruz (egutegia, jaiak, zerbitzuak, bidaiak,...) azterketak egin eta bere kasuan, proposamenak luzatu.
4. Ikastolako azpiegiturari eta bere erabilpenari buruz azterketak egin eta bere kasuan, proposamenak luzatu.
5. Oro har hezkuntza komunitateari begira, eta espezifikoki ikasleak dauden jardura desberdinetan parte hartzera bultzatu.

Helburu hauek guztiak aztertuz, ondorioztatu daiteke ikasleek adierazten dutela **ikastolako eginkizunetan parte hartu** nahi dutela alde batetik, eta kolektibo honen arteko komunikazioa eta ikastolako gainontzeko kolektiboekiko komunikazioa suspertu nahi dutela bestetik.

Beraz, proiektu hau ikerketa marko orokorrean kokatzerakoan, aztergai izan genuen 3. ardatzean atxikituko genuke: “**Antolaketatik, kudeaketatik eta komunikaziotik horizontaltasuna edo binoranzkotasuna eraikiz**”. Bere barnean bi dimentsio nagusi azalduko lirateke:

1. Antolaketa eta kudeaketa.
2. Komunikazio prozesuak.

Aipatu ardatz eta dimentsio hauetan azaltzen diren unerik garrantzitsuenak hauek lirateke:

- ↗ Erakunde giroa.
- ↗ Antolaketa.
- ↗ Sozializazioa: osotasuna eta horizontaltasuna.
- ↗ Komunikazioa: informaziotik komunikaziora.

Marko orokor honen barruan lehentasun bat eskaini diegu azken bi gune hauei eta osatu dugun **TALDE MISTOA** bitarteko bat izango da **hezkuntza komunitate dialogikoa** sortzen hasteko, hasiera batean aztergai espezifikoko bat izango dugularik.

METODOLOGIA

Helburu nagusia **Hezkuntza komunitate dialogikoa** eraikitzea izanik, kontuan hartu beharreko irizpideak, hauek lirarteke:


☺ **Komunikazioa eta elkarrizketaren (dialogicidad) garrantzia.** Bi aspektu hauek oso garrantzitsuak dira ezaguera eraiki ahal izateko. Metodologia honen barruan **horizontaltasuna eta sozializazioa** bultzatuko ditugu. Oso garrantzitsua izango da bideratzaileen papera, halaber ere arazoak sortzen direnerako mahai gainean galdegai egoki batzuk planteatzea. Azken finean, hauek gogoeta eta ezaguera sortzeko bideak errazten dituzte. Beraz, taldeak komunikatzen ikasi egiten du, aipatu irizpide hauen barruan eta era berean bertako kide guztiak **hezkuntzaren aldaketaren eragile** izatera bultzatzen da.

☺ **Bideratzaileak.** **Hezkuntza komunitate dialogikoa** markoaren barruan, bideratzaileen papera guztiz garrantzitsua dela esan dezakegu. Gure kasu espezifikoan, kontsideratuz bertako kide guztiak hezkuntza aldaketaren eragileak izatea nahi dugula, proiektuaren hasierako bideratzaileak gainontzeko kideak formatzen saiatuko dira. Azken hauek **komunikazio eta elkarrizketaren bultzatzaile eta dinamizatzaile** izanik, partaide aktiboak izango dira. Beraz, horizontaltasuna bultzatuz, arazoak identifikatuz, galdegaiak sortuz, prozesua aurrera eramango dute gainontzeko kideekin batera, beti ere, **perspektiba etika, justua eta demokratikotik abiatuz**, gaia instrumentalizatu gabe eta gure Hezkuntza Proiektuan indarrean ditugun baloreak potentziatuz.

Bideratzaileek prozesuaren argazkia jasoko dute bi dokumentuetan:

- 1) Saioaren oharren orria, non bertan adierazpen nagusiak jasoko diren.
- 2) Saioaren balorazio orokorra jasoko duen txostena, non egindako adierazpen eta sortutako elkarrizketaren ondorioz, eraikitzen joango garen aztergai dugun eremua.

☺ **Aztergai dugun eremua bitarteko bat izango da ikastolaren barnean aldaketa instituzionala hedatzeko.** Hots, **hezkuntza komunitate dialogikoa** hedatzen joan behar dugu ikastolako osotasunean, bere hezkuntza komunitatean, bere hezkuntza jardueran, bere antolaketa eta kudeaketan, bere komunikazio eta berrikuntza prozesuetan. Horregatik, ikasleek azaldu dituzten interesetatik abiatuz, eta **komunikazioa garatu eta sendotu nahian**, **TALDE MISTOA** osatu dugu, bertan **Hezkuntza komunitate dialogiko** txiki bat sortuz.



Esan bezala, helburu nagusia ikastolako osotasunean, **hezkuntza komunitate dialogikoen** estiloa garatzea litzateke eta dugun aztergaia kontuan harturik, **TALDE MISTOA**n jarduten duten kolektibo eta organo desberdinetako kideek bere eremu espezifikoetan gaia landuko dute. Beraz, proiektuaren hedapena era honetara izatea proposatzen dugu.



⇒ **TALDE MISTOA**ren osaketan parte hartuko dute:

GURASOAK: Ikastolako Lehendakaria, Batzordekide bat, Pedagogi azpibatzaile kide bat eta Geletako Guraso Ordezkarien Taldetik beste bi kide.

IRAKASLEAK: Talde pedagogikoko kide bat, Koordinatzaile Pedagogiko Orokorra eta etapa bakoitzeko ordezkari bana.

IKASLEAK: DBH 2. Zikloko gela bakoitzeko ordezkari bana.

BIDERATZAILEAK: **Hezkuntza komunitate dialogikoak** proiektuko bi kide.

Metodologiarekin lotutako beste zenbait ohar:

⇒ **Bideratzaileek** hasiera batean dinamizatuko dute taldea, **gogoeta, partizipazioa, horizontaltasuna, konkretzioa eta giro egokia bultzatuz.**

⇒ Sortzen diren arazoak identifikatzen saiatuko gara, horretarako galdegaiak oso lagungarriak gertatuko zaizkigularik, beti ere gure ikastolako baloreak islatuz.

⇒ Gogoratu aztergaia bitarteko bat izango dela, ikastola osoan **Hezkuntza komunitate dialogiko** bat sortzeko asmoz. Beraz, kide guztiak sortu nahi dugun estilo honen eragileak izango ginateke.

⇒ Erabiliko diren instrumentuak hauek izango dira: **Ohar** eta adierazpen zehatzak jasoko duena, eta ondoren prozesuaren ildo nagusi, gogoeta eta garapen pedagogikoa jasoko duen **txostena**.

⇒ Ohar eta txosten hauek, nahiz bideratzaileen artean adostuak izan, taldean banatu eta **irekiak** izango dira.

⇒ Prozesua aurrera eramán ahal izateko, **gutxieneko araudi edota fase** konkretio baten beharra aurreikusten da.

- ✓ Taldearen hasierako bileran, lortu beharreko **helburuen kokapena, metodologiaren sozializazioa** eta beste **zenbait aspektu teorikoren** azalpena.
- ✓ Prozesuaren **garapena eta ekoizpena** (instrumentu desberdinetan jasoa).
- ✓ Prozesuaren **balorazioa** (balorazio txostenean jasoa).
- ✓ Deialdiak eta beharrezkoa den materiala bideratzaileek kudeatuko dituzte.
- ✓ Organo desberdinetarako **komunikazio fluxua bermatu**, ordezkarien bitartez.

Eranskinak

Nondik dator proiektu hau?

IKASTOLAREN
KOMUNITATEAREN
BEHARREN
IKERKERTA

IKASLEEN
TALDEAREN
PRIORIZAZIO
TXOSTENA

IKASTOLAREN
ILDO
ESTRATEGIKOAK

IKASTOLAKO
OINARRIZKO
PROZESUEN
EGITURA

GELETAKO
GURASO
ORDEZKARIEN
TALDEA

BATZORDEA
PEDAGOGI
AZPIBATZORDEA
TALDE PEDAGOGIKOA
KLAUSTROA
IKASLEEN TALDEA

TALDE MISTOA:

Zertarako

**Ikasleen interesak aztertu eta
ikastolarekiko komunikazioa
sendotu.**

Baina, zer da **HEZKUNTZA KOMUNITATE DIALOGIKOA**?

Ikastolako kolektibo guztiak ordezkatzeko duen giza taldea (Ikasleak, gurasoak, irakasleak)

Zertarako?

Erakunde zentzua lortzeko, elkarren arteko giroa aberasteko,...

Zertarako?

Ikastolako antolaketa hobetzeko

Zertarako?

Noia?

Gaiak elkarrizketaren bidez sozializatu.

Informaziotik komunikaziora pasatzea

Zertarako?

Zer lortuz?

Osotasuna eta horizontaltasuna (demokrazia) bermatzeko.

Zeintzuk dira sozializatuko ditugun gaiak?

Ikastolaren funtzionamenduaz ikasleengandik jasotako proposamenak,...

Ikastolako araudia eta bere aplikazioaz kontrasteak egin eta hobekuntzak proposatu.

Ikastolako dinamikari buruz: jaiak, egutegia, zerbitzuak, bidaiak, ... azterketak eta proposamenak egin.

Ikastolako instalazio eta erabilpenari buruzko azterketa eta proposamenak egin.

Oro har, ikasleak jarduera desberdinetan parte hartzera bultzatu.